

OSTEGUNA

2023/12/07
11. urtea, 1.886. zenbakia
107,6 fm
Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Autozaintza lantzeko tailerra antolatu du Irurako Udalak

Bilera ireki bat egingo dute
abenduarien 15ean
tailerraren nondik
norakoak azaltzeko // **6**

Tolosa P taldeko gimnastak nagusitu dira

Tolosa CF Klubeko
kirolariak irabazi dute
Espainiako Txapelketa // **7**




ASIERIMAZ

«Etxea zatituta daukagu musikaren eta kirolaren artean»

ISABEL DUMALL ETA IÑAKI MUJIKA KIROLARIA ETA MUSIKARIA

Ama-emeak dira Isabel Dumall eta Iñaki Mujika; 'Ataria'-k bien ibilbide
oparari errepasoa egin dio 'Eta zer ez da (ez) berdin' elkarrizketa seriean // **4-5**



Gogoeta sustatzeko hamaika aukera izango dira Altzon

Igandean hasiko dute Olentzerotan Jakin-minez egitaraua azoka egunarekin; astelehenean zaintza ereduak izango dituzte hizpide, 19:00etatik aurrera, Batzarremuñon

Erredakzioa Altzo

Igandean, abenduak 10, hasiko dituzte Altzoko XXVII. Olentzerotan Jakin-minez egitarauko ekitaldiak. Azoka egunarekin hasiko dituzte jarduerak, eta abenduaren 21a bitarte askotariko hitzorduak izango dituzte.

Ekitaldiaren izenari darion bezala, duela 27 urte eman zitzaion hasiera negu bezperako ekimen horri. Jakintzak partekatzeko eta gogoeta sustatzeko guneak sortzea eta gozamenarako tartak eskaintzea izan da ekimenaren helburua ekitaldiz ekitaldi orain artekoetan, eta antolatzaileek diote hala dela aurtien ere.



Pasa den urteko azoka egunean hartutako irudia. J.M.

EGITARAUA

Abenduak 10, igandea

Azoka eguna. Azoka 10:00etatik 14:00etara plazan. Euria eginez gero frontoian.

Abenduak 11, astelehena

Solasaldia. Zaintza ereduak: Usurbil eta Hernaniko esperientziak solasaldia, Agurtzane Solabarrieta eta Jabier Lertxundi, Usurbil eta Hernaniko alkateekin, 19:00etan, Batzarremuñon.

Abenduak 12, asteartea

Tailerra. San Blas erroskilak egiteko tailerra Gurutze Gaztañagaren eskutik, 17:30etik aurrera, Elordi elkartean. Izen ematea udaletxean.

Abenduak 13, asteazkena

Dokumentala eta solasaldia. Apaiz kartzela dokumentalaren emanaldi eta solasaldia Xabier Amurizarekin, 19:00etatik aurrera, Batzarremuñon.

Abenduak 14, osteguna

Solasaldia. Netflixek Joxe Azurmendi irakurri zueneko solasaldia. Europa bezain zaharra liburuak izango du hizketagai Haritz Azurmendi Arruek, 19:00etan, Batzarremuñon.

Abenduak 15, ostirala

Kantaldia. Verde Prato 19:00etan Batzarremuñon. Sarrerak udaletxean edo Ostatuan, 5 euroren truke.

Abenduak 16, larunbata

Ipuin kotaketa. Kontalari2 ipuin kotaketa 17:30ean, Batzarremuñon.

Talo jatea. Ume eta gaztetxoak 20:00etan, eta gazteak zein helduak 21:00etan, guztiak Elordi elkartean. Otordua: taloa, hirugiharra, txorizoa, txokolatea eta gaztainak. Ume eta gaztetxoek 8 euro ordaindu beharko dituzte, ikasle gazteek 14 euro eta helduek 22 euro.

Abenduak 21, osteguna

Musika emanaldia. Loatzo musika eskolako musikarien emanaldia 19:00etan, Batzarremuñon.

Asuncioneko hitzarmena ez duela sinatuko dio ELAk

Sindikatuaren ustez patronalak proposatutako testuak ez du KPIa bermatzen, eta atzerapenak enpresaren borondatearen araberrakoak izango dira

Erredakzioa Tolosa

ELA sindikatuak ez du Asuncion Klinikako hitzarmena sinatutako. Hain justu, langileek astearrean jakinarazi zuten ontzat ematen dutela enpresak mahai gainean jarritako proposamena, eta ondorioz, mobilizazioak bertan behera uzten dituztela. ELAren ustez ordea, «proposamenaren edukia aztertuta, ez du KPIa bermatzen, %4 baino gehiago falta baita 2022-2023-2024 urteetako erosteko ahalmena berreskuratzeko. Eta testuak ez du inolako bermerik 2022-2023 urteetako atzerapenetarako; enpresaren borondatearen araberrakoa da soilik». Asuncion Klinikako langileek enpresaren negoziatzeko borondate eskasari erantzuteko 29 greba egun egin dituztela gogoratu du, eta esan

du «egindako bidea positiboki baloratu arren, gatazka beste akordio batekin amaitu behar zela uste dugu».

Salatu du LABek alde bakarrez erabaki zuela Lan Harremanen Kontseiluak azaroaren 27an egindako bileran enpresak aurkeztutako proposamena bozkatzea, «orain arte izandako lankidetzeta hautsiz».

ELAk uste du greba dinamika ikusita bazeudela baldintzak eduki hobeak lortzeko, eta horretarako, batzordeak (ELA 6 ordezkari ditu eta LABek 7) orain arte egindako bidea indartzea eta jarraitzea proposatu behar zuela. Sindikatuak langile guztiei dei egiten die antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko, datozen urteetan izango diren lan hobekuntzei eta publikazio prozesuari begira.

Saltokien egoera energetikoa aztertu dute

Erredakzioa Tolosa

Tolosalde Garatzen agentziaren Piztu Tolosaldea estrategia-barruan Tolosako 11 saltoki, Villabonako 5 eta Zizurkil zein Ibarako saltoki banaren egoera energetikoa aztertu dute, eta aurrezpen energetiko eta ekonomikorako hobekuntza proposamenak egin dizkiete. Azterketa horien ondorio nabarmenena da aztertu dituzten saltokietan, urte-

an, 16.487,66 euro aurrezteko potentziala dagoela, batzaz beste %17,9ko aurrezpena suposatuko lukeena.

Proiektuak bi atal nagusi izan ditu, batetik, saltokietara bisita teknikoak egin dituzte establezimendu bakoitzeko egoera bertatik bertara aztertu ahal izateko eta, bestetik, saltoki bakoitzeko elektrizitate kontratuaren azterketa egin dute.

Tolosalde Garatzen garapen agentziak urteak daramatza energiaren arloan sektore ezberdinei zuzendutako aholkularitza-jarduerak eskaintzen. Izan ere, beste sektore ekonomiko batzuetan garatzen den moduan, energia-gastuak establezimenduen gastu orokorraren zati garrantzitsua ordezkatzeko dute.

IRAGARKI LABURRAK


Lana

Negozio aukera. Berrobiko Ostua hartzeko aukera paregabea, alokairu kosturik gabe. Interesatuak deitu 652 73 56 38 telefono zenbakira.

zozketak

Atarikideentzat ortzadarra dugu

Sualmaren eskutik eskuz eginiko egurrezko ortzadar txikia



Atarikideentzat bi sarrera bikoitz ditugu

Euskadiko harri handien
HARRI JASOTZE TXAPELKETA

Abenduak 16, larunbata
Asteasun



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus



Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariek kantatu zioten Pernando Amezketari; kultur etxeak izen berria du larunbatetik. N.R.A.

Fernando Bengoetxea Altuna hil zela 200 urte bete diren honetan, Pernando Amezketarra Eguna ospatu eta kultur etxea bertsolariaren izenez bataiatu dute

Izena eta izana Amezketari

Naiara Roldan de Aranguiz

Berrehun urte igaro dira Pernando Amezketarra hil zela, baina herrian oraindik orain oso presente dago. Hone- la, Amezketako Udalak Pernando Amezketarra Egunaren ospakizunarekin bertsolariaren izaera benetan ezagutzeko baliatu nahi izan zuen.

Horrebestez, goiz osoko ospakizunei ekin zieten. Lehenik, Pernandoren ibilbidea egin zuten herrian barrena. Hala ere, ibilbi- dearen zati bat ezin izan zuten

burutu eguraldiagatik, nahiz eta aurretik auzolanean herritarrek bidea egokitu. Ibilbidean zehar antzerki esketxak izan ziren, eta bertsoak eta azalpenak ez ziren falta izan. Pernandori egotzi izandako alproja izaeraren gai- netik, askoz ere gehiago izan zela aldarrikatu zuten: langilea, sor- tzailea, sendi zaintzailea, jakin- duri handiko pertsona eta zapal- duen aldekoa. Azken batean, «bertsolaritzan aitzindaria eta gizon zinez azkarra».

Dohainak gogora ekartzen he- rritarrak aritu ziren batetik, gel- tokiz geltoki eskainitako antzer- ki saioen bitartez. Eta haiei eske-



Herritar ugari parte hartu zuen Pernandoren Ibilbidean. N.R.A.

rrak eman zizkieten, aurretik ere egindako lanketagatik. Eukene Fernandez, Aitzol Etxeberria, Ander Balerdi, Naiara Beloki, Alaitz Labaien, Alain Etxeberria eta Eneko Goitia izan dira Pernandoren garaia girotzeaz ardu- ratu direnak.

Antzerkiaz gainera, bertsola- ria omentzeko ezin bertsoak fal- ta. Herriko bertsolari Bixente Gorostidi aritu zen Fernando Bengoetxea Altuna *Pernando Amezketarra* omentzen. Lan ho- rretan ondoan izan zuen Anjel Mari Peñagarikano. Omenaldiez gain, eta adar-jotzaile galanta ze- nez gero Fernando, Gorostidi eta Peña elkarri zirikatzen ere en- tzun zituzten bertaratutakoek.

IZENA AGERIAN

Herriko alkate Mikel Arteagak ardura izan zuen azken esketxa aurkezteko. Orduan, transmi- sioa izan zuen gogoan Arteagak, Fernando egunaren ospakizune- rako ezinbestekoa: «200 urte eta gero Pernandoz gogoratzen ba- gara transmisioari esker da».

Jarraian, garaiko erretorea Juan Inazio Urretabizkaia, eta meza-laguntzailea azaldu ziren kultur etxeko barandara. Hone- la, bataiatzearen unea iritsi zen, antzerki bihurtuta, eta azken egunetan, kultur etxean zintzilik egondako pankarta kentzeko ga- raia heldu zen. Orduan, agerian geratu zen errotulu elegantea: Pernando Amezketarra Kultur Etxea. Aurrerantzean, amezke- tarrek biltzeko eta kulturaz goza- tzeko guneak izen berria izango du, bertsolaria zendu zela bi mende gogoratu.

EZIN JANA FALTA

Eta edozein ospakizunek eska- tzen duen gisan, Amezketan ere, festa talo jatearekin amaitu zu- ten. Larrunarri frontoia jatetxe bihurtu eta taloak dastatzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



David Hernandez Sancho

Abenduaren 6an hil zen,
65 urte zituela.

- Goian Bego -

*Maite zaitugun guztiok, dagoeneko
zure hutsunea nabari dugu.*

Oharra: Gorputz beila familia intimitatean egin da.

TOLOSA, 2023ko abenduaren 7an.



Unai Ugartemendia

Kirolari amorratua da Isabel Dumall (Jaka, Aragoi, 1966) ama; musikazale amorratua, aldiz, Iñaki Mujika (Asteasu, 2002) semea. Betidanik izan dituzte musika eta kirola ezinbesteko etxean, eta hala jarraitu nahiko lukete aurrerantzean ere. Bien ibilbide oparoari begiradatxo bat bota nahian elkartu nahi izan ditugu ATARIA-n.

Gogoan al dituzue zuen alorean emandako lehen urratsak?

Isabel Dumall: Nire bizitza beti egon da kirolaren inguruan, eta beti egin izan dut kirola. Nire herrian, Jacan (Aragoi, Espainia), korrika eta eskiatzen hasi nintzen. Ondoren, Jarduera Fisikaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean egin nituen ikasketak Madrilen, eta gaur egun ere kirolaren inguruan jarraitzen dut Asteasuko kiroldegian. Nire zaletasunik handiena da kirola.

Iñaki Mujika: Etxeko guztiak musikariak izan dira, amonatik hasi eta arrebaraino. Arreba helduagoa, Andoaingo Musika Eskolan hasi zen, eta nik ere hura nahi nuen. Lehenik, pianoarekin hasi nintzen, eta, ondoren, bateriarekin, gitarrarekin, eta baxuarekin ere ibilitakoa naiz.

Amona piano irakaslea izan zenuen zuk Iñaki. Gogoan duzu lehenbizikoz piano baten aurrean noiz jarri zinen?

Mujika: Ez dut oso ondo gogoratzen, baina sei urte inguru izango nituen. Amona askotan ikusten nuen pianoa jotzen, eta niri ere hura probatzeko gogo sartuko zitzaidan [barrezka]. Aitaren aldetik ditudan osaba-izeba eta lehengusu guztiak jotzen dugu instrumenturen bat, eta amaren aldetik ere baten batek jotzen du instrumenturen bat.

Zuk ere, Isabel, jotzen omen duzu zerbait.

Dumall: Ni ere Iñakirekin batera hasi nintzen pianoarekin. Izugarri gustatzen zait musika niri ere, baina txikitik ez nuen aukerarik izan ezer ikasteko. Basteroko (Andoain) kultur gunera joaten ginen batzuetan biak batera klaseak hartzera. Denborarekin utzi egin nuen. Euskarari bultzada bat eman nahi nion, eta aukeratu egin behar izan nuen. Euskarara aukeratu nuen. Pianoa zain daukat geroztik.

Inoiz imajinatu duzue zuen etxea musikaririk gabe?

Mujika: Ez! Ni gaur egun ez naiz Asteasun bizi, baina joaten naizen aldiro baten bat beti dago zerbait jotzen, edo bestela beti dago musika jarrita.



«Ez dugu imajinatzen etxea musikaririk eta kirolirik gabe»

ISABEL DUMALL ETA IÑAKI MUJIKA KIROLARIA ETA MUSIKARIA

Jacan korrika eta eskiatzen hasi zen, eta ordutik, kirolarekin lotutako bizitza izan du amak; semeak, berriz, musikari heldu zion txikia zenetik, beretzat, adierazteko modua delako eta askatasuna ematen diolako

Eta kirolirik gabe?

Dumall: Ezta ere! Iñakiri musikarekin gertatzen zaiona, niri kirolarekin gertatzen zait. Etxean beti daude oinetakoren batzuk lehortzen, edo mallaren bat. Etxea zatituta daukagu ehuneko berrogeita hamarrean musikarekin eta beste berrogeita hamarra kirolarekin.

Zerk kateatu zintuzteten kirolera eta musikara?

Dumall: Natura oso gogoko dut, eta lagunekin hasi nintzen eskiatzera joaten. Leku bikaina da Jaca eskiatzeko, eta lagunak ondoan izanda ezin nuen gehiago eskatu. Geroztik kateatuta jarraitzen dut.

Mujika: Musika adierazteko dagoen modu oso on bat da, eta niri musikak askatasuna ematen dit. Musika jotzen ari naizenean beste munduan batean banengo bezala sentitzen naiz.

Zergatik da ezinbesteko kirola zuen bizitzan?

Dumall: Ez nuke jakingo esaten. Amonak seme-alabak zaletu zituen bezala, etxeko bostok beti egin izan dugu kirola. Gaur egun esan dezaket, kirola bizitzeko modu bat bihurtu dela gure etxean. Kirola egitera gonbidatu izan ditut seme-alabak, baina inoiz ez ditut derrigortu. Gure zaletasunak transmititzen saiatu izan gara, eta zortez hirurak dira kirolariak.

Oso natural sentitzen dugu kirola etxean.

Zu jaiotzerako, Iñaki, ama jada Espainiako txapeladun izandakoa zen iraupen eskian hainbat urtetan. Zer kontatu izan dizute amaren inguruan?

Mujika: Txapelketa asko irabazi zituen amak ni jaiotzerako, eta niretzat normala izan da berari buruzko kontakizunak entzutea. Lagunei kontatu izan dizkidanean, denak harrituta gelditu izan dira egin duen ibilbideaz. Etxean askotan ikusi izan ditut bere argazkiak eta bideoak, eta haiek ikustean argazki haietako kontakizunak ere kontatu izan dizkigute.

Urte asko pasatu dira goi mailako kirola utzi zenuenetik. Askotan begiratu izan duzu atzera?

I.D. Ez naiz atzera begiratu zaile. Aurrera begiratzea gehiago gustatzen zait. Egia da noizean behin argazki zaharrak berrikusuten ditudala, baina gehienbat motibazioa eta poza eragiten dizkidelako egiten dut.

Semeak amarena ez, baina amak semearen ibilbide guztia jarraitzeko aukera izan du. Zer jarraipen egin izan diozu bere ibilbideari?

Dumall: Beste bi seme-alabei egin izan diedan berbera egin diot Iñakirenari ere. Askotan inplikatu izan gara berarekin ere, bai kirolean aritzen zenean, eta baita musikarekin ere. Judon aritzen zenean, txapelketa askotara joan izan ginen. Beste biek ere antzera ibili izan gara. Beti lagundu izan diegu, baina agobiatu gabe. Inoiz ez gara fanatikoak izan, itzalean egotea gustukoago izan dugu.

Ikasketak egiteko garaian, argi izan zenuten zer ikasi nahi zenuten?

Dumall: Nik oso argi izan nuen beti. Garai haietan Madrilen ba-karrik zegoen nik nahi nuena ikasteko aukera. Etxean zer ikasi nahi nuen esan nuenean, erotzat hartu ninduten! Ez zeuden bate-re ados nirekin. Ez zuten uler-tzen kirolek bizimodua atera zitekeenik. Gaur egun oso arrun-ta da soin hezkuntzako ikaske-

«Gure zaletasunak transmititzen saiatu izan gara»

ISABEL DUMALL
KIROLARIA

tak egitea, baina orduan ez zen ohikoa.

Mujika: Nik, aldiz, ez neukan hain argi. Banekien musikarekin zerbait egingo nuela, baina, Ba-txilergoko bigarren maila buka-tu arte ez nuen argi ikusi zer ikasi nahi nuen. Gauza asko nituen buruan, eta hasiera batean inge-niaritzako ikasketak egin nahi nituen. Gurasoekin izandako el-karriketa batean esan zidaten zergatik ez nituen musikako ikasketak egiten. Gaur egun ho-rretan dihardut.

Zuk, Isabel, argi ikusten ze-nuen Iñakik musikarako ba-lio zuela?

Dumall: Askok sufritu nuen garai hartan! Senarrari askotan esaten nion, etxeko baten batek musika ikasketak egin behar bazituen, horrek Iñaki behar zuela. Gaia ai-

«Inori ezer esan gabe aurkeztu nintzen ‘Goazen’-eko castingera»

IÑAKI MUJIKA
MUSIKARIA

patzen genionean, berak azkar esaten zigun ingeniariatzarekin probatu nahi zuela. Azkenean, eta nire pozerako, amore ematea lortu genuen [barrezka]. Beste behin aipatu zidan, bikoizketa-aktore izateko ikasketak egin nahi zituela. Eta nik esaten nion: «baina zuk badakizu zein arrisku duen horrek?». Iñakiri buruan zerbait sartuz gero, zaila izaten da hortik ateratzen.

Inoiz damutu izan zarete egin-dako ikasketez?

Dumall: Ni behintzat ez naiz inoiz damutu. Bete-betea as-matu nuela iruditzen zait.

Mujika: Ni oraindik karreraren erdibidean nago, baina gaur gaurkoz oso gustura nago auke-ratutako ikasketekin. Musikene-rako sarbidea ez nuen erraza izan, gehienbat oso plaza gutxi daudelako. Behin barruan egon-

da, argi neukan gozatu egin be-har nuela, eta ikasketei gogor eu-tsi behar niela.

Iñaki, zu telebistan ere ikusi izan zaitugu azken bi denbo-raldietan ‘Goazen’ telesaillean. Egia al da inori ez zeniola aipa-tu castingera aurkeztu behar zenuenik?

Mujika: Bai, inori ez nion esan aurkeztu behar nuenik. Proba huts bat zela banekien, eta, gai-nera, ez nuen uste inondik inora hautatua izango nintzenik. Nire pertsonaia antzezteko, 80 per-tsona inguru aurkeztu ginen, eta bakarra aukeratu behar zuten. Batere esperientziarik ez nuen telebistan, baina gutxinaka au-rrera nindoan castingean. Azke-neko probetako batean, beste az-terketa bat ere banuen, eta den-boraz gaizki ibili behar nuenez, etxean esan egin behar izan nuen.

Dumall: Halaxe izan zen bai! Taxista lanak egin behar geni-tuelako kontatu zigun etxean. Azterketa eta castingaren artean oso denbora gutxi zeukan, eta guri esan izan ez baligu, ez zen iritsiko. Musikeneko probak prestatzen ari zen garai hartan, eta nik esaten nion arreta jar ze-zala horretan. Behin telesailera-ko hartu zutenean, gure babesa besterik ez diogu eman. Beste mundu bat ireki zaio Iñakiri, eta guk ere asko gozatu dugu *Goa-zen*-en aitzakian! Bera oso gustu-ra ikusi dugu. Ezin dugu gehiago eskatu.

Zer nolako esperientzia izan da oro har?

Mujika: Oso ona, batez ere eza-gutu dudak jendearengatik. Gaur egun asko egoten naiz haie-kin. Haietako batekin, gainera, proiektu batean ere murgildu naiz. Nahigabe, ate asko ireki-tzen dira telebistatik igaro ondo-ren. Etxekoek asko lagundu di-date, eta esperientziaz gozatzeko esaten zidaten aldiro. Jada amai-tu dut *Goazen*-eko lana. Oso es-perientzia gogorra izan zen, bai-na izugarri gozatu nuen.

Amak nola bizi izan du espe-rientzia?

Dumall: Niri beldurra ematen zidan famaren kudeaketak. Egun batetik bestera, gure etxe-ko Iñaki izatetik, pertsonaia eza-gun izatera pasa zen. Kanean umeek asko gelditzen zuten, eta alde horretatik errespetua ema-ten zidan. Oso natural bizi izan du esperientzia. Bera nolakoa den ezagututa, pentsatzen nuen ez zitzaiola txorakeria burura igoko, eta halaxe izan da. Umee-kin zintzoa eta tratu onekoa iza-tea eskatzen nion, eta, bai, horre-tan ez du hutsik egin.

AURREZ AURRE

Aurrez aurre bideoa
hemen ikusgai:
Ataria.eus



Zer da Iñaki/Isabel zuretzat?

Dumall: Nire bigarren semea da, eta nire bizi-tzako zati handi bat.

Mujika: Nire ama bizitzako erreferente handienetako bat da.

Nola definituko zenuke parean duzuna?

Dumall: Oso pertsona ona da, sentibera, jatorra, eta laguntzeko prest dagoena. Txikitan oso mainontzia zen, eta oraindik ere horrela jarraitzen du izaten.

Mujika: Oso pertsona ona da, umila, eta ondokoei beti laguntzeko prest dagoena.

Zein ezaugarri positibo nabarmenduko zenuke besteaz?

Dumall: Beti laguntzeko prest eta on-dokoa besarkatzeko prest egoten da Iñaki.

Mujika: Beti egon izan da nire beharrei erantzuteko prest, eta nire bidean erabakiak hartzeko garaian asko lagundu izan dit beti.

Zerbait nabarmendu beharko bagenu ez hain positiboa?

Dumall: Buruan zerbait sartzen zaionean, oso zaila izaten da hortik ateratzea. Gauza ona baldin bada, ondo dago, baina niretzat hain gustukoa ez denean, sufriarazi egiten nau. Orain artean behintzat, erabaki onak hartu izan ditu oroko-rreran. Bestalde, oso desordenatua da!

Mujika: Gustuko ez dudak zerbait egin nahi ez dudanean, esaterako, nire logela garbitu, ama atzetik izaten dut beti, egin arte [barrezka].

Nora joaten zara edo joango zinateke gustura berarekin?

Dumall: Edozein lekutara! Oso moldaera one-koa da, eta edozein lekutan ondo moldatuko li-tzateke, esaterako, basamortuan edo elurretan.

Mujika: Bai kontzerturen batera, edo baita naturarekin zerikusia duen edozein lekuta-ra, bai mendira edo eskiatzera.

Bestearekin pasatako une bereziren bat edo pasadizoren bat?

Dumall: Txikitan askotan erortzen zen. Txilinbuel-tak egiten pasatzen zuen eguna, eta beti kinka larrian ibiltzen zen. Behin, izugarria hartu zuen, eta eskolara anbulantzia ere etorri zen be-ragatik. Ezin zuela mugitu esaten zuen, eta proba asko egin ziz-kioten. Medikiak ezer ez zuela esaten zuen. Berak nahi zuen gauza bakarra zera zen, gurgildun ahulki batean ateratzea!

Mujika: Txikitan edozein bidaietara joaten ginenean igarotako uneak ez ditut ahazteko. Orain ere joango nintzateke hilabeteko bi-daiaren batera!

Autozaintzaz gogoeta egiteko amentzako tailerra antolatu dute

Irurako Berdintasun sailak 10 saioko tailer bat antolatu du ama izan direnek euren buruaren zaintzan sakontzeko; Lara Lopez de Ansorena psikologoak gidatuko ditu saioak

Jon Miranda

Irurako Udaleko Berdintasun sailak legealdi berrian zaintzaren gaiari helduko dio. Mugimendu feministak eskatuta 2024an herriko zaintza sistemaren diagnostikoa egingo dute eta ateratako ondorioak aintzat hartuz, ekintza plan bat diseinatuko dute herrian. Bien bitartean, ordea, gai honetan sakondu nahi dutela aipatu du Noelia Lataburu Berdintasun zinegotziak eta horregatik, urtearen hondarrean, amei zuzendutako tailer bat antolatu dute, «euren buruaren zaintzan eta autozaintzan sakontzeko».

Dozena erdi emakumek eman dute izena tailerrean, baina oraindik ere zabalik dago izen ematea. «Ama izan berri direnek edo seme-alaba koskortuagoa dutenek eman dezakete izena, ez dugu horretan mugarik jarri», esan du Lataburuk. Interesa dutenek 943 69 13 33 udaleko telefonora hots egin dezakete edo mezua bidali berdintasuna@irura.eus helbidera. Guztiekin, bilera ireki bat egingo dute abenduaren 15ean, 18:30ean Irurako gela boro-bilean, tailerraren nondik norakoaz elkarrekin hitz egiteko.

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA

Tailerra gidatzeaz arduratuko den Lara Lopez de Ansorena (Tolosa, 1982) psikologoak izen ematera animatu ditu Irurako emakumeak: «Gaur egun dauzkagun betebeharrak guztiekin eta daramagun erritmo zoroarekin, horrelako es-



Ezkerrean Noelia Lataburu Irurako Berdintasun zinegotzia, eta eskuinean, Lara Lopez de Ansorena psikologoa. J.M.

pazio batek eskaintzen duen sosegua emakume askorentzat onuragarria izan daiteke». Hain zuzen, psikologoak esan duenez espazio seguru eta konfiantzazkoa sortu nahi dute, «inongo epaiketarik gabea».

Hamar saio dauzkate aurreikusita eta ordu eta erdiko iraupena izango du saio horietako bakoitzak. «Guztien artean adostu nahi nituzke gaiak, baina dinamikak gorputzetik abiatzea proposatuko diet; erlaxatuz, *mindfulness* pixka bat eginez. Iruditzen zait amatasunean gure gorputzarekin askatasun falta handia izaten dugula, ez dugula astirik izaten gure gorputza zaintzeko. Tentsioak as-

katu eta geure barruan begirada jartzen saiatu nahi nuke».

Lopez de Ansorenak dio arreta jarri beharra dagoela osasun mental perinatalean. «Zaurgarrien dauden momentuan sentitzen dute bakardade handiena hainbat emakumek. Uste dut gizartean era askotako dispositiboak sortu beharko liratekeela ama horiek dituzten beharrak asetzeko». Psikologo tolosarrak, Maria Altuna Lizarraga ilustratzaile zizurkildarrarekin batera *Ai ama, mantazpiko kontutxoak* liburua sortu du, hain justu, gai horiek guztiak mahai gainean jartzeko.

«Askotan ardura guztia emakumearengan edo asko jota familia

sistema mugatu horretan jartzen da, baina ume bat hezteko tribu oso bat behar dela dioen esaera afrikarrarekin bat nator ni», esan du Lopez de Ansorenak. Azpimarra berezia egin du amatasunaren inguruan dagoen iruditeriak ekartzen duen kaltean: «Anbibalentzia emozional handiko momentua da erditze ondokoa. Tristura, dolua, amorruea, pena, beldurra edota antsietatea sentitzen ditugu maiz, eta emozio horiek estigma sozial handikoak dira. Amatasunaren errepresentazio bakar bat ematen da, ama zoriontsuarena, dena ondo egiten duenarena, baina badakigu hori ez dela horrela».

Iruran eskainiko dituzten tailerretan emozio horiek normalizatu eta ase gabe dauden behar horietan jarriko dute arreta, Lopez de Ansorenaren ustez, oinarrikoenak diren beharrak ere ezin bete geratzen baitira maiz, bereziki, erditze ondoko momentuetan. «Haustura handiko uneak dira. Dinamika asko eten egiten dira, lagunekin geneuzkanak adibidez, eta osasuntsu egoteko oreka handiak egin behar izaten ditugu. Emakume bezala, amatasunaz harago nola elikatu gaitezkeen aztertzeko espazio komun bat izango da tailerra. Elkarrekin egingo dugu bidea».

Dinamika parte hartzaileak egingo dituzte, hortaz, Irurako saioetan. Lehen bilerara ume eta guzti gerturatzeko aukera dagoela gogorarazi du Lataburuk: «Umeen zaintzaz ari gara eta baita gure buruaren zaintzaz ere. Problematizatu nahi duguna hori bada, kontraesankorra litzateke inor kanpoan geratzea umea zaindu behar duelako eta gerturatzeko astirik ez duelako».

Beraz, interesa duten emakume guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera eta abenduaren 15eko bilerara gerturatzera. «Nahiko nuke emakume hauek hasi baino hobeto bukatzea ikasurtea. Askeago, indartsuago eta ahaldunduago. Ez bakarrik amatasunean, beste esparruetan ere gaitasun gehiago dauzkatela sentituko balute hamar saioak pasata, zoragarria izango litzateke», esan du Lopez de Ansorenak.

Babestu **Ataria** • Oparitu harpidetza • Eskatu zurea: 943 65 56 95 / ataria@ataria.eus



Opari honekin, **Ataria** babesteaz gain, maite duzun horri 365 egunetan euskarazko eskualdeko albisteak oparituko dizkiozu.



Tolosa P taldeko gimnastek Espainiako Txapelketa irabazi dute

Iruñean jokatu da txapelketa eta Tolosa CF klubeko gimnastak bertan izan dira, baita Belabietakoak ere

Erredakzioa

Tolosa CF klubeko gimnastak Iruñean izan dira Espainiako Txapelketan. Bertatik esperientzia berrien artean urrezko domina ekarri dute. Navarra Arena pabiloira ilusioz bidaiatu zuten. Oinarrizko infantil taldeetako hamar gimnastentzat denboraldi berezia izan da, beren lehen esperientzia izan baita nazio mailako lehiaketa batean. Tolosa P taldeko Arene Amondarain, Ane Iraola, Aroa Madina, Uxue Morea eta Haizea Aldasoro izan ziren klubeko lehenengo ordezkariak. Tapiza gogoz zapaldu eta ariketa zoragarri baten ostean lehen postuan kokatzea lortu zuten. Hor mantendu ziren eguna amaitu bitartean, Espainiako txapeladun geratzuz.

Lujan Diez, Maren Alonso, Enara Jaka, Uxue Ormazabal eta Ellen Mills, Tolosa H taldeko gimnastak, ondoren parte hartu zuten. Beren lanaz gozatu zuten, eta baita ikusleek ere. Saillapen orokorrean 35. izan ziren 110 taldeen artean.



Urrezko domina lortu duten bost gimnastak. TOLOSA CF GIMNASTIKA

Oinarrizko jubenilak, Olaia Echeverria, Sara Rudel, Nahia Esnaola, Irune Suarez, Aizpea Arroyo eta Ainhoa Merino, klubeko txikientzat eredu dira. Hauek larunbatean parte hartu zuten, eta tapizean gogotsu aritu ziren denboraldian zehar egindako lana erakusteko gogoz. Guztira 147 talde ziren, eta 11. sailkatzea lortu zuten.

Igandean, juniorren txanda izan zen. Aiora Vega, Naroa

Asenjo, Eneritz Diaz de Gureñu, June Bengoetxea eta Nora Perezek taldekako Espainiako kopako 3. fasean parte hartu zuten eta 11. izan ziren. Gimnasta hauek begirada datorren astean Valladoliden izango duten Espainiako txapelketan daukate. Hortaz, Iruñeko tapiza zapaltzea indarra eta esperientziaz baliatzeko ezinbestekoa izan da.

Klubak talde guztien lana, esfortzua eta kemena goraipatu ditu. Baita entrenatzaile, familia eta babesleak diren Cmo Valves, Garaje Tolosa eta Udarko Promoren babesa. Haiei esker, klubeko gimnasten entrenamendu baldintzak beren beharretara egokitzeko aukera dute.

Eguberriei hasiera emateko, Tolosa CFko gimnastek hilaren 19an, 19:00etan, Leidorren ekitaldi berezi bat eskainiko dute.

BELABIETAKO GIMNASTAK

Iruñeko Navarra Arena pabiloian Ibarrako taldeak ere bere ordezkaritza izan zuen. 147 oinarrizko jubenil taldek parte hartu zuten eta Belabietako taldeak 15. postua lortu zuen. Emaiza horrek denboraldi bikain bati amaiera ezin hobea eman diote.

Belabietako entrenatzaileek eskerrak eman dizkie Iruñera animatzera joan ziren gimnasta eta guraso guztiei. Bestalde, oinarrizko jubenil taldeak egin duen lana goraipatu dute eta lortutako emaitzagatik zoriondu.

Artola eta Iztueta garaile, Beotibarren



Beotibarren, atzo, partida nagusiko lau protagonistak. A. IMAZ

A. Imaz

Tolosako Beotibarren harmailak bete ziren atzo arratsaldean. Binakako txapelketako bi partida jokatu ziren, eta bietan eskualdeko ordezkari bana zegoen. Jaialdiko partida nagusian Iñaki Artolak jokatu zuen, Imaz atzean zuela. 22-11 irabazi zien Laso-Aranguren. Garaipen horrekin txapelketako lehen puntua lortu zuen alegiarrak. Hurrengo partida atseden tarte handiegirik gabe jokatu beharko du Artolak, ostiralean, Donostiako Atano III.a pilotalekuan Elordi-Rezutarren aurka.

Jaialdiko lehen partida bigarren mailako binakako txapelketakoa izan da. Bertan Iztuetak meritu handiko lehia jokatu du,

Agirre aurrean zuela. Azken emaitza 22-18koa izan da, Larrazabal-Eskiroz gaindituz.

SOROA, FINAL-LAUDENAK

Ogi-Berri Txapelketa Migel Sorroa Oroimenezkoaren hiru partida jokatu dira ostiralean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Lehenengo eta bigarren partidak lehen mailakoak izango dira. Hasteko, Beñat Apezetxea eta Oliden ariko dira Rekalde-Bernaola bikote bizkaitarraren aurka. Bigarren partidari U. Amiano-Erle bikotea ariko dira Lizeaga eta Cansecoren aurka. Bukatzeko, elite mailakoa jokatu dute Elola eta Alduntzinek eta Fernandez-Lozak. Final-laurdenetako pilota jaialdia 16:30ean hasiko da.



INTXURREREN OMENALDIA

Arene Amondarain gimnasta alegiarrak omendu du Intxurre Kirol eta Kultur Elkarteak. Amondarainek Espainiako txapelketa irabazi berri du Tolosa CF Gimnastika Erritnikoko Taldearekin. Bere herritar eta lagunek lorpena ospatzeko egin diote omenaldia. ATARIA



AITOR ECEIZA AZKARRENA

XI. Etxebarri Xtreme mendi lasterketa jokatu zen igandean, eta Alpino Uzturre taldeko Aitor Eceiza tolosarrak irabazi zuen 10 kilometroko trail lasterketa. 46 minutu behar izan zituen Eceizak proba amaitzeko eta Aitor Mentxaka bigarren sailkatuari ia minutuko aldea atera zion helmugan. Hirugarren postuan Mikel Rodriguez sailkatu zen. TOANNGO



OSTEGUNA, 2023KO ABENDUAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 07

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Haragiaren sektoreari buruzko abeltzaintzat batzar informatiboa, Fraisoroko laborategia. Sarrera libre.

Zinema

Tolosa. *Las dos caras de la justicia*

Erakusketak

Amasa-Villabona. Kotoiaren emakumeak erakusketa, Gurea aretoan. Ehun estanpazioan lan egindako Amasa-Villabonako emakumeen bizi-istorioak.

Tolosa. John Blundall, txotxongilo-maisu aldi baterako erakusketa, Topic-en.

Tolosa. Muttertum Euskal emakume eskultoreak. Euskal Herriko 20 artistaren erakusketa kolektiboa, Aranburu jauregia.

Tolosa. Santa Clara. Tolosa 1612-2023, Aranburu jauregia. Klaratarren lau mendeko ibilbidea Tolosan biltzen duen erakusketa.

Tolosa. Titirijai begirada bat iraganera erakusketa, Topic-eko anbigu aretoan. 1982an hasi zenetik, gaur egunera arte jaialdiaren argazki esanguratsuenekin osatutako bilduma.

28 KANALA

10:30. Ate ondoan ditugunak.

13:30. Tolosaldea Gertutik.

15:00. Durangoko azoka 1. eguna.

20:00. Bizkargi musika eta dantza eskolaren emanaldia.

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Tolosand blues.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro kaxkarra.

Goizean goizetik hasita hodeiak ugariak izango dira eta euri giroa izango dugu. Goizean zaparrada tartekatua eta orokorrean ahulak izango dira. Arratsaldean ugaritu egingo dira eta azken orduetan mardul xamar botako du. Hego-haize zakarra nagusituko da, eta temperatura pixka bat jaitsiko da, 10-13 graduan joaz goia.



Bihar. Bustitik jarraituko du.

Egun osoan hodeiak ugariak izango dira eta zaparrada giroa nagusituko da. Zaparradak tarteka mardulak izango dira, eta goizean ez da bazterten ekaitzak jotzea ere. Azken orduetan euri gutxiago egingo du, baina ez du erabat atertzerik lortuko. Mendebaldeko haize bizia nagusituko da eta tenperaturak beherako bideari eutsiko dio, 9-11 graduan joaz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Belabietako batailaren 150. urteurrena gogoratuko dute Amasan

Abenduaren 9tik 17ra izango dira ekitaldiak, eta tartean, abenduaren 12tik 17ra, Belabietako batailaren inguruko erakusketa egongo da jarrita Amasako kultur etxean

Jon Miranda Amasa

Abenduaren 9an beteko dira 150 urte Amasako lurretan, Belabietako mendiaren magalean, karlisten eta liberalen arteko borroka odoltsua izan zela. Amasa-Villabonako Udaleko Memoria eta Bizikidetzatza batzordeak gertakari historiko horri buruzko ikerketa zientifikoa agindu zion Aranzadi zientzia elkarteari 2021ean.

Hiru urteotan azterketa hori burutzen aritu dira ikerlariak eta herritarren artean informazioa zabaltzeko asmoarekin, bataila gertatu zeneko zortzi gunetan launa panel jarri dituzte. Andoain, Berastegin, Tolosa, Villabona eta Amasan jarri dituzte panelak, orduko borroka lekuetara joateko ibilbideen hasierako puntuetan. Bataila gertatu zeneko beste hiru gunetan, berriz, Belabietan, Uzturren eta Amasako Meakako gurutzean —han izan ziren borrokarik latzenak— panel berezi bana jarri dute.

Orain, Amasa-Villabonako Udalak eta Aranzadi zientzia elkarteak elkarrekin, batailaren 150. urteurrena gogoratzeko ekitaldiak prestatu dituzte. Abenduaren 9tik 17ra egingo dira ospakizunak.



Bataila oroitzeko jarritako paneletako bat. J.M.

EGITARAUA

Abenduak 9, larunbata

12:00. Meakako gurutzean lore eskaintza batailaren 150. urteurrena.

Abenduak 12tik 17ra

Erakusketa. Batailari buruzko erakusketa Amasako kultur etxean; abenduaren 12tik 15era 18:00etatik 20:00etara ikusi ahaliko da eta abenduaren 16 eta 17an 10:30etik 12:30era.

Abenduak 12, asteartea

19:00. Amasako kultur

etxean Zer izan zen Belabietako bataila? hitzaldia, Aranzadi zientzia elkarteak kideen eskutik.

Abenduak 16, larunbata

10:00. Amasako plazatik Belabietara mendi ibilaldi gidatua eta hamaitaketa Meakako gurutzean.

Abenduak 17, igandea

12:00. Ekitaldi nagusia Amasako plazan. Dantzariak, bertsolariak, pintxoak eta abar luze bat.


 **sulumobel**

Adinekoiei
segurtasuna eta **irisgarritasuna**
ematen dien soluzioa.

Altzari egokituen soluzio integralak

Egokitu zure sukaldea
zure bizitzara

1.990€* -tik hasita



*Basic-pack eguneraketa.



Informazio gehiago:
www.sulumobel.com
943 96 89 64